



2022/09/29KO UDALBATZAREN OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2022/09/29
Hasiera ordua: 19:00
Amaiera ordua: 19:15

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Gorka Astondoa Altuna

Iban Herrarte Arana

Ana Maria Martiarena Arregi

Maria Cristina Etxenausia Irure

Oihana Ameskoa Perez

Santiago Balantzategi Beitia

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Juan Antonio Peña Orobengoa

Ez bertaratuak:

Pedro Elosegui González de Gamarra

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzaillea, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| 1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURAKO AKTA. | 3 |
| 2. DEKRETUEN BERRI EMATEA. | 3 |
| 3. ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA ONARTZEA 2023 EKITALDIRAKO. | 3 |
| 4. GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PLANA BERTAN BEHERA UZTEA. | 3 |
| 5. IBZ ERAIKINA UDAL ONDASUN ETA ESKUBIDEEN INBENTARIOAN SARTZEA. | 7 |
| 6. "MAIDER UNDA" UDAL KIROLDEGIA ERABERRITZEKO ETA HANDITZEKO OBRA KONTRATUAREN ESLEIPENA. | 10 |
| 7. GALDERAK ETA ESKAERAK. | 17 |



1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURAKO AKTA.

Alkate-Lehendakariak 2022ko ekainaren 30eko ohiko bilkurako aktaren gainean inork oharrik ote duen galdetu du.

Inork akta horiei buruz oharpenik ez duenez, lehendakariak aktak onartzeko bozketa deitu du eta aho batez onartu da, 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Udalbatza, besterik gabe, azken ohiko bilkuratik egin diren dekretuen jakitun gelditu da (242/22tik 356/22ra).

3. ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA ONARTZEA 2023 EKITALDIRAKO.

Alkateak adierazten du, egoera ekonomiko nahiko nahasia bizitzen ari galera eta familia eta negozioen estutasunak areagotuko direla, hori dela eta orokorrean tasa eta zergak izoztea proposatzen du. Hala ere, 2023ra begira ordenantza fiskaletan aldaketa hau egitea proposatzen du: Hiri Hondakinen Tasa.

Tasa horren ordenantza 2017an berriztu zen guztiz eta berria 2018an jarri zen martxan. Berrizte horretan ordaintze tasak gehiago zehaztu ziren eta urteak zeramatzanez igoerarik izan gabe, eta Jundizeko hondakinen tasa asko igo zenez, %25eko igoera aplikatu zen. Orduetik, %4ko igoera bat egin zitzaion, 2020tik aurrera aplikatu zena eta 2022rako %7ko igoera egin zitzaion Jundizeko igoerak kontuan izanda:

| | udal ordenantzaren garapena | | | |
|---|-----------------------------|--------|--------------|--------|
| | 2022 (%8) | 2021 | 2020 (%4) | 2019 |
| Etxebizitzak | 68,85 | 63,75 | 63,75 | 61,30 |
| Lokal profesionalak | 102,32 | 95,63 | 95,63 | 91,95 |
| Merkataritza, tailer mekanikoak, lehen sektore profesionala,... | 136,43 | 127,5 | 127,5 | 122,60 |
| Taberna, jatetxeak, elkarte gastronomikoak,... | 170,54 | 159,38 | 159,38 | 153,25 |
| Industria/hezkuntza (Mendixola) | 238,72 | 223,1 | 223,1 | 214,52 |

Baina tasa honek momentu honetan, hondakinek sortzen duten gastua ez du estaltzen:

| 2020an kobratze maila | |
|-----------------------|------------|
| 70.893,29€ | 43.275,00€ |
| GASTUAK | SARRERAK |

Zerbitzu honen gastua Jundizeko hondakinen tasak asko baldintzatzen du, eta hondakinak penalizatu eta murrizten joateko betebeharrak, azken urteetan igoera ezberdinak izatea ekarri dute:

2022ra begira, %3ko igoera aurreikusi zuten baina azkenean %6 igo zuten. Hondakinak kudeatzen digun patzuergoak %6ko igoera aurreikusi du 2023rako igoera progresiboak egiten ari direlako.

| Jundiz igoerak | |
|----------------|-------------|
| 2016 | 68,56€/t |
| 2017 | 68,56€/t %0 |
| 2018 | 85€/t %24 |
| 2019 | 85€/t %0 |



| | | |
|-------------|----------|----|
| 2020 | 88,4€/t | %4 |
| 2021 | 91,97€/t | %4 |
| 2022 | 97,49€/t | %6 |

Besterik gabe, aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak eta Zerbitzuen Batzordeak Udalbatzari egiten dioten erabaki proposamena, 2023ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko diren ordenantza fiskalen aldaketari buruz:

“**Lehena.-** Onartzea aldaketa egitea eta %8ko igoera egitea, igoera ezberdinak kontuan izanda eta hondakinekin dugun erroka Europarrak kontuan izanda.

Bigarrena.- Onartzea hasierako onarpena ematea ordenantza fiskalaren aldaketari.

Hirugarrena.- Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 16 artikuluan ebatzitakoarekin bat, jakinaraztea behin behineko izaeraz onartu diren zerga ordenantza eta tasak arautuko dituen ordenantzako testua, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49.b). artikuluan erabakitakoarekin bat (41/1989 Foru Arauko 50. artikulua batekin bateratsu), jendearen eskura jarrita daudela, udaletxeko bulego orokorrean, 30 egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek egoki irizten dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Laugarrena.- Jakinaraztea, halaber, erreklamaziorik ez badela aurkezten erakustaldi publikoaren epearen barruan, erabakia behin betiko onartutzat hartuko dela.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

4. GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PLANA BERTAN BEHERA UZTEA.

Alkateak gogorarazten du, Udalbatzak 2022ko ekainaren 30ean eginiko ohiko bilkuran hasiera batez onartu zuela erretiro aurreratuei buruzko primei buruzko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa. Horren xede nagusia zen erretiro aurreratuari buruzko primak onartu eta arautzea.

Legedi eta jurisprudentzia aldaketa tarteko direla, idazkariak txostena egin du planaren egungo egoera deskribatuz.

Aipatutako programa horren edukia onetsi zen, besteen artean, honako hauek xedatutakoaren babespean: abenduaren 29ko 22/1993 Legearen bidez Funtzio Publikoa erreformatzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legean gehitutako 21. xedapen gehigarria eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 22. artikulua 1., 2. eta 3. paragrafoak.

Aurrekoa gorabehera, Auzitegi Gorenak, 2022ko apirilaren 5ean eman zuen 421/2022 epaiaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2020ko azaroaren 6ko epaia balio gabetu zuen eta martxoaren 16ko 344/2022 epaian eman zituen argudioak errepikatu zituen zuzenbideko bosgarren oinarrian; izan ere, 344/2022 epai horrek kasazio doktrina ezarri zuen erretiro aurreratuagatik haborokinak, haien izena edozein dela ere, ezartzen dituzten toki erakundeen akordioen balio gabetasunari dagokionez, haiei estaldura emango dien irismen orokorreko lege-araua egon arte. Hona hemen aipatutako argudioak:

“Argi eta garbi ezarritako jurisprudentzia irizpidea da toki erakundeen akordioetan aurreikusitako erretiro aurreratuagatik haborokinek - bakoitzaren izena izena edozein dela ere - ordainsari izaera dutela, eta, beraz, zuzenbidearekin bat datozela iriztiko da, baldin eta toki administrazioko funtzionarioen ordainsariei buruzko irismen orokorreko arauen batean oinarritzen badira (...).

Horri dagokionez, adierazi behar da goian aipatutako 30/1984 Legearen 21. xedapen gehigarriak, erretiro aurreratuak sustatzeko neurriak aurreikusi arren ere, ez zuela erregulazio zehatzik egin neurri horiek ordainsari izaera duten kasuetarako, eta, beraz, ez duela betetzen erretiro aurreratuagatik haborokinak irismen orokorreko lege-arau batean babestuta egoteko eskakizuna.”

Azken batean, apirilaren 5eko 421/2022 epai horrek gogoratzen du gaiari buruz ezarritako jurisprudentzia doktrina, eragindako edozein kolektibori aplikagarria, hain zuzen, irismen orokorreko lege estaldurarik ez duten akordio edo itunetan tokiko enplegatu publikoentzat ezarrita dauden erretiro aurreratuagatik pizgarriak zuzenbidearekin bat ez datozela iriztea.



Gaur egun oinarrizko izaerarekin indarrean dagoen ordainsari sistema Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legeak arautzen du eta, toki eremuan, hura osatzen duen Toki Administrazioiko Funtzionarioen Ordainsarien Araubidea ezartzen duen apirilaren 25eko 861/1986 Errege Dekretuak. Horrela, bada, ezarritako doktrinaren arabera, haiek ez dituzte arautzen erretiro aurreratuetatik aipatutako pizgarriak.

Azkenik, Basauriko Udalak jarritako kasazio errekurtoa ebazten duen Auzitegi Gorenaren ekainaren 7ko 682/2022 Epaiak arestian adierazitako doktrina berresten du.

Arestian azaldutakoaren arabera, ondorioztatu behar da Aramaioko Udalak 2022ko ekainaren 30ean egindako Udalbatzan onartutako Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programan jasotako erretiro aurreratuei buruzko neurriak ez direla gizarte prestazioak, ordainsariak baizik, eta berariaz arautzen dituen Estatuko oinarrizko legerik ez dagoen bitartean, bidegabeak direla. Beraz, legezkotasun eta segurtasun juridikoaren printzipioetan oinarrituta, ondoriorik gabe utzi behar dira.

Besterik gabe, aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak eta Zerbitzuen Batzordeak Udalbatzari egiten dioten erabaki proposamena:

“**Bakarra.-** Indargabetu eta bertan behera uztea, Udalbatzak 2022ko ekainaren 30ean eginiko ohiko bilkuran hasiera batez onartu zuela erretiro aurreratuei buruzko primei buruzko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

5. IBZ ERAIKINA UDAL ONDASUN ETA ESKUBIDEEN INBENTARIOAN SARTZEA.

Alkateak gogorarazten du, Herri-administrazioek inbentariatu egin behar dituztela beren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak, eta behar besteko xehetasunez jaso behar dituzte ondasun eta eskubide horiek identifikatzeko behar diren aipamenak, bai eta egoera juridikoa eta zertarako erabiltzen diren adierazteko behar direnak ere.

Baliabide hori modu eraginkorrean kudeatzeak onura ekarriko du, interes orokorra eta herritar guztientzat bermatze aldera, eta funtsezkoa izango da helburu hori lortzeko toki-erakundeen ondasunen inbentarioa behar bezala mantentzea.

Herri-administrazio guztiek dute beren ondasun eta eskubide guztien inbentarioa egiteko betebeharrak orokorra, edozein dela ere ondasun eta eskubide horien izaera edo eskuratzeko modua. Betebehar hori Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 32.1 artikuluan, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bateginaren 86. artikuluan (apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) eta Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 17. artikuluan (ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onartua) jasotzen da.

Udal zerbitzuak konturatu dira IBZ eraikina bezala ezagutzen den udal ondasuna ez dagoela inbentariatuta, hau da, ez dagoela udalaren ondasun eta eskubideen inbentarioan jasota.

Hartara, aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak eta Zerbitzuen Batzordeak Udalbatzari egiten dioten erabaki proposamena:

“**Lehena.-** IBZ eraikina inskribatzea dagokion legezko eran, udalaren ondasun eta eskubideen inbentarioan.

Bigarrena.- Alkatea eskuordetzea aurreko inskripzioa aurrera eramateko beharrezko diren izapide guztiak aurrera eramateko.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.



6. “MAIDER UNDA” UDAL KIROLDEGIA ERABERRITZEKO ETA HANDITZEKO OBRA KONTRATUAREN ESLEIPENA.

2022/05/26ko udalbatzak onartu zuen, besteen artean, hasiera ematea “MAIDER UNDA” UDAL KIROLDEGIA ERABERRITZEKO ETA HANDITZEKO OBRA kontratatzeko espedienteari.

Ondoren, esandako obra kontratua lehiaketa bidez emateko espedientea onestea ebatzi zuen, maiatzaren 26an egindako saioan eta, hartara, administrazio-klausula berezien eta preskripzio teknikoen agiriak onestea eta, halaber, dagokion gastua onartzea.

Halaber, azken saio horretan ebatzi zuen, alkatea eskuordetzea eskaintza onuragarriena egiten duen lizitatuileari errekerimendua egiteko.

Interesdunek aurkeztu zituzten proposamenak lizitazioan irekitako epean eta, kontratazio mahaiaren txostenean zehaztutakoarekin bat, hauek izan ziren lortutako puntuazioak eta hurrenkera:

| Izen soziala | Ingurumen irizpideak | Eskaintza ekonomikoa | Guztira |
|-------------------------------|----------------------|----------------------|----------|
| CONSTRUCCIONES APLIBUR, S.L.. | 0 puntu | 80 puntu | 80 puntu |

Administrazio klausula bereziekin bat, errekerimendua egin zitzaion puntuazio altuena jaso zuen proposamena aurkeztu zuenari, 2022ko abuztuaren 2ko Kontratazio Mahaiaren Errekerimenduaren bidez eta, interesdunak, denborazko epe eta modu egokian, guztia gehitu zion espedienteari, behin betiko fidantza barne.

Kontuan hartuz, kontratazio mahaiaren txostena, espedientean jasotako dokumentuak eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoarekin bat etorri (9/2017 Legea, 2014ko otsailaren 26koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora), Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, ondorengo erabaki proposamena egiten dio Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak eta Zerbitzuen Batzordeak Udalbatzari:

“**Lehena.-** Esleitzea **CONSTRUCCIONES APLIBUR, S.L.** enpresari (I.F.K. B09588740), “**MAIDER UNDA” UDAL KIROLDEGIA ERABERRITZEKO ETA HANDITZEKO OBRA** exekutatzeko kontratua. Kontratuaren prezioa izango da 338.581,53.-€ gehi %21eko BEZari dagozkion 81.602,12.-€, hau da, guztira **470.183,65.-€**. Bestalde, kontratuaren exekuzioan kontuan hartu beharko dira, lizitatuileak bere proposamenean aurkeztutako txostenean eskainitakoak.

Bigarrena.- Dagokion gastua xedatzea eta ebazpen honen berri ematea Kontu-hartzaitzari eta Diruzaintzari, dagozkion kontabilitate-idazpenak egin ditzaten.

Hirugarrena.- Alkatea eskuordetzea dagokion kontratua sinatzeko eta beharrezko jardunbideak aurrera eramateko. Hartara, dagokion zita egingo da interesdunarekin. Ohartarazi beharra dago, kasu honetan kontratazioaren arloko errekurso berezia jartzeko aukera dagoela eta, beraz, formalizazioa ezin izango dela egin lizitatuileei eta hautagaiei esleipenaren jakinarazpena bidali eta hamabost egun baliodun igaro baino lehen.

Laugarrena.- Kontratu honen arduradun izendatzea Oier Ezquerria Ibarra jauna, udala aholkatzen duen arkitekto teknikoa (edota, badagokio, berak izendatzen duen ordezkia), 9/2017 legeak, azaroaren 8koak, sektore publikoaren kontratuenak, 62 artikuluan aurreikusitako funtzioekin.

Bosgarrena.- Interesdun guztiei jakinarazte adjudikazioaren berri, eta erakundearen kontratatzaile-profilean argitaratzea.

Seigarrena.- Kontratua formalizatu eta, gehienez ere hamabost eguneko epean, horren berri iragartzea kontratatzailearen profilean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen III. eranskinean jasotako edukiarekin.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

7. GALDERAK ETA ESKAERAK.



Esp. kodea.: 2022APAK0006

Gaia: 2022/09/29 UDAL PLENOAREN OHIKO BILKURAREN AKTA

Ez daude.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.